

BALEIKE

232. ZENBAKIA. EURO BAI
2014ko MAIATZA

www.baleike.com

SANTELMOAK 2014

ARGAZKI BILDUMA

ERREPORTAJEA: KANPINA, PROIEKTUTIK ERREALITERA



Kalitatezko
produktuak

Gipuzkoako
Okelaren
Ziurtagiria:
GI-OKELA

ZUMAIA
Basadi auzategia, 4.
Tel./Faxa: 943 860 621

ZARAUTZ
Salegi kalea, 14.
Tel./Faxa: 943 890 215

Juanjo Larrañaga harategia



Casa BASUSTA

CASA
BASUSTA
LORATEGIA

Ezkontzak, Bataioak, Jaunartzeak,
Lore-zentruak, Koroak,
Landare naturalak eta artifizialak,
Zeramika-lanak eta zumezko saskiak

Etxez etxeko zerbitzua

Santiago Auzoa, 18 TEL: 943 862611



BALEIKE 232

AZALA G. Zabaleta



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea

e-maila: elkartea@baleike.com

Administrazio batzardea: Agustin Zubimendi eta Xabier Azkue.

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Ainara Lozano

Lasa, Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon

Urbietia, Izaskun Urbietia eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

azubimendi@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Legu gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

TOKIKOM

16

argazkitan

SANTELMOAK 2014

4

hitz-tantak
JONE OSA ETA ANE
AZKUE

11

baleike +
ZUMAIAKO
INDUSTRIA ONDAREA
INTERNETEN

7

erreportajea
BASUSTAKO
KANPINA

30

bertso xorta
JEXUX IRIBAR "OLALDE"

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaia Udalak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



“Arazoetatik ihes egiteko eta disfrutatzekeo momentua izaten da dantza”

Maiatza dantzaren nazioarteko hilabetea da eta Zumaian ez gara gutxiago izango. Hirugarren urtez jarraian, “Maiatza Dantzan” ekimena antolatu du Astindu dantza taldeak. Hilaren 10ean hasi eta 31ra arte bost dantza saio izango dira Zumaiko hainbat lekutan.

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

Zer da zuentzat dantza?

Jone: Une honetan bizitza osoa. Dantzako klaseak ematen ditut. Afizioa, ofizioa eta parranda ere bai! Ane: Txikitatik erakutsi didate dantza. Pentsa: koadrilan Ane *la danseur* deitzen didate. Horrekin dena esaten dizut!

Zer du maiatzak jendea dantzan jartzeko?

Jone: Nazioarte mailan, maiatza dantzaren hilabetea da. Dantzaren Eguna ere badago eta hori ere maiatzean da. Zumaian bakarrik ez, inguruko herri pila batean daude dantza programazio bereziak maiatzean. Horri helduta antolatu genuen lehen aldiz “Maiatza Dantzan”.

Zerk eramaten zaituzte dantza egitera?

Jone: Gauza batzuetan ez naiz abila, baina hemen seguru sentitzen naiz eta autoestimua igotzen dit. Arazoetatik ihes egiteko eta disfrutatzekeo



momentua izaten da. Nirea den momentu bat da eta saiatzen naiz hori besteei transmititzen.

Ane: Ondo pasatzen dut dantzara joaten naizenean eta azkenean disfrutatzeraz joaten zara.

Eta zerk urrutiratzen zaituzte dantzako pista batetik?

Ane: Hasieran beldur eszeniko gehiago genuen. Euskal dantzen

ikuskizuna egin genuenean, Ondartxon, kristoren lotsa pasa genuen. Orain beldur txikiagoa sentitzen dugu, baina, hala ere, beti izaten da nerbio hori dantzara irten baino lehenago. Baina lehenengo saioaren ondoren, normalean lasaitu egiten zara; bigarrenago hobeto egiten duzu eta azkenekoan dena ematen duzu.

Jone: Eszenarioak, jendaurrean egoteak, beti ematen dizu urduritasun puntua. Niri beldurra ematen didana da maila ez edukitzea edo teknika ez izatea. Dantza asko egin dugu, baina teknika oso gutxi landu dugu. Beldurra ematen dit ez ote naizen gai izango neure burua hobetzeko.

Norekin dantzatuko zenukete tango bat?

Jone: Ja, ja, ja. Oso zaila da tangoa. Nire ustez dantzarik zailena da.

Ane: Ni ez nintzateke

gai izango tango bat dantzatzekeo.

Agarrau bat orduan. Norekin?

Jone: Nire aitarekin, bai. Erromerietan aita inguruan ikusten badut, beti harrapatzen dut.

Eta norbaiti “aire, aire!” esan?

Jone: Puf, askori! Ja, ja, ja.

Dantza klasikoa edo garaikidea?

Ane: Garaikidea. Horrekin hasi naiz aurten eta pila bat gustatzen zait.

Jone: Klasikoa teknika da eta garaikidea gehiago da disfrutatzea.

Eta hor euskal dantzak non geratzen dira?

Jone: Niretzat lehen postuan daude. Txikitatik gehien bizi izan ditugunak dira eta oraindik ere ordu gehien horiekin sartzen ditut. Identitate aldetik gehiago dut euskal dantzena



beste estiloena baino.
 Ane: Orain arte euskal dantzek zuten lehentasuna, baina iruditzen zait tope batera heldu naizela eta ez dudala aurrera egiten. Horregatik beste dantza batzuk probatzen nabil orain.

Zumaian badugu mundu mailako dantzari onetako bat, Lucia Lacarra. Zer da zuentzat?

Ane: Herrikoa izanda, guretzat jainkoa bezalakoa da. Eredu bat da.
 Jone: Dantzak gutxietsita daude. Umeak etorri zaizkit esanaz dantzek ez dutela ezertarako balio. Lucia Lacarrak erakusten du dantza lanbidea izan daitekeela, ez dela denborapasa hutsa. Saiatzen bazara lor dezakezu, eta balio baduzu, karrera luze bat izan dezakezu.

Astindu taldeak astindu al ditu herriko dantzaren hautsak?

Jone: Orain sei bat urte herrian apenas zegoen dantzarik. Orain gauza desberdinak daude. Zerbait egin dugu, zer ez dakit, baina zerbait bai.
 Ane: Mutilak ari dira dantzara animatzen. Oso poliki, baina orain momentuan aretoko dantzetan lau mutil ditugu.

Zergatik kostatzen zaigu gizonezkoei plazara ateratzea dantzara?

Jone: Gizartea horrela dagoelako jarrita. Futboleko mutil gehiago animatzen dira neskak baino; arraunean ere bai, nahiz eta orain emakumezkoena indarra hartzen ari den. Eta Eroski batean emakume gehiago daude eta fabrika batean gizonezko gehiago. Eredu horiek puskatu nahi ditugu eta buruan dabilkit ideia bat mutilak dantzara animatzeko.

Egia al da euskaldunon bizkarrezurra porlanezkoa dela?

Jone: Baina euskal dantzak ere porlanezkoak dira. Euskal dantzak euskaldunekin egin behar dira, zuzen, inongo espresiorik gabe. Indarra eta benga, baserritarrak gara!
 Ane: Garaikidean esaten ziguten dena puskatu behar genuela. Hasieran pila bat kostatu zait. Txikitatik ikasi dut zuzen egon behar dudala eta orain kontrakoa ari zaizkit esaten.

Ze berrikuntza izango ditu aurtengo "Maiatza Dantzak"?

Jone: Umeen saiorik ez da izango 'Dantzara' ikuskizunean, urtean zehar umeentzako saioak izaten dira eta. Helduen saioak izango dira eta horretarako beste herrietatik ekarritako taldeak izango dira: Zestoakoak, Azpeitikoak, etab. Bestalde, Gainera, saioak ikusteaz aparte, dantza egitera bultzatu nahi ditugu ikusleak. ■

“Mutilak ari dira dantzara animatzen. Oso poliki, baina...”

EGITARAUA

Maiatzak 10: Dantzara IV
 Maria eta Jose Ikastetxeko Aretoran

Maiatzak 17: Dantza Klasikoa
 Kantauri plazan

Maiatzak 24: Dantza Neoklasikoa
 Estazioan

Maiatzak 28: Euskal Dantzak
 Odieta pilotalekuan

Maiatzak 31: Areto Dantzak
 Alai auzategian

Saio guztiak 19:00etan.



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8
20750 Zumala (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak
tel.: 943 14 31 22

Kopiak eta materiala
tel./Faxa: 943 14 31 20
www.a3zumaia.com
a3@a3zumaia.com

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak



LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569

Egin zaitez **BALEIKEKO** bazkide



GERRAKO BOST DESAGERTU AURRITU DITUZTE

ALBERDI
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188
943 143261

Egin zaitez **BALEIKEKO** bazkide



GERRAKO BOST DESAGERTU AURRITU DITUZTE



ALGORRITABERNA

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA



ANA
ETXKO ZAPATAK

Ignacio Zuloaga enparantza
tel. 943 861 157 anaetxeokozapatak@telefonica.net



D'Ana

ILEAPAINDEGIA

Kantauri plaza, 6. behea tel. 943 117 408

Ardantzabide
ALTZARIAK-AROZTEGIA


www.ardantzabide.com

Erakusketa, Hego kalea, 4-5
Denda, Txomin Agirre, 4 Aroztegia, Santiago, 40
Tel.: 943 862 532 Tel.: 943 861 631

ARGISUN
ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Girozea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995 www.argisun.com
info@argisun.com



OKINDEGIA
Arkupe

Nagusia, 2 - tel. 943 561 501
ZUMAIA

OGI-EDER



ARRUTI
Basasar Etxe 2 / 9
Zumaia 943016429



AUTOS ZUMAIA

Urola plaza, 3-5 tel. 943 861 485



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25
20749 Arroa tel./faxa 943 148 306
bakun@euskalnet.net




Basadi albaitaritz

Ribaitario
Itaki Garmendia

Basadi, 7. behea - tel. 943 143 310
www.maribelbasadi.com
www.basadiclinicvet.com

Golez: 11-13 / Arrabaldiz: 16-19:30 / Astehen goizean eta larunbatean bita
Lanaldietarako: 605 728 737 Etxez ebeko zerbitzu

BASUSTA
ERRETEGIA



Patxita Etxezarreta, 25 tel. 943 862 073



Braky's
Okindegia Katedegia

Izaga kalea, 2
20750 Zumala (Gipuzkoa)
Tel.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289

Basustako **kanpina:** proiektutik **errealitatera**

Makina hondeatzaileak lanean hasiak dira Basustako magalean, Zumaiko kanpina ezarriko den eremuan. Bi urte eta erdiz proiektu honetan inbertituko zuen norbaiten bila ibili eta gero, Basusta etxekoek lortu dute azkenean finantziazioa eta lanak abian dira. Arazorik ez bada, 157 partzelako kanpina 2015eko otsailean zabalduko da eta urte horretako Aste Santurako funtzionamenduan izango da.

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET
ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA

Basustako haztegiko instalazio zaharrak eraisten dabilta makinak. Metro gutxira, etxe zaharretik hurbil, egur prentsatuarekin egindako teiltu berdeko bungalow bat dago. Bertan aurkitu dugu lanean Juan Luis Saez. Ordenagailuaren aurrean, telefonoa eskuan, datozen egunetarako agenda ordenatzen dabil. “Salgai ditugun bungalowak erosteko interesa dutenen zerrenda bat dut eta datozen egunetarako elkarrizketak zehazten nabil”. Bi logela, egongela, komuna, sukaldea eta balkoi txikia sarreran dauzka bungalowak. Kanpotik txikia dirudi, baina eroso egoteko baldintzak ditu etxe mugikorrak. “Burgoseko enpresa batek egin dizkigu. Traua egin dugu guk beraiei erosiko dizkiogula bungalowak eta beraiek ez dizkietela beste inori salduko modelo honetako etxeak”. Are gehiago: Zumaia izena jarri diote modelo honi. Horrelakoak, handiagoak eta pixka bat txikiagoak ere jarriko dira Artadira eta Beduako irletara, Usurbiribillagara, ematen duen mendi hegalean.

Orain bost urte izan zuen Saezek Basustako lursailetan kanpina jartzeko ideia. 2012an *Baleikeri* egindako adierazpenetan hala zioen: “Guk lehen ehizara bideratutako hegaztien haztegia genuen hemen, Basusta etxean. Krisiaren eraginez, ikusi genuen ne-



Lehen mailako kanpina izango du Zumaiak; 157 partzelakoa eta 600 lagunentzako kapazitatearekin

gozia behera zihoala. Eta gero gertatu zitzaigun hegazti migrazioailek ekarritako gaixotasunarena. Administrazioak behartu gintuen hegazti guztiak akabatu eta urtebetez produkzioa gelditzera. Itxi egin behar izan genuen”. Urtebetera jaso zuten Bastsusta etxean berriro hegaztien negozioari heltzeko baimena, baina lege berriak ezarritako baldintzek ez zuten bideragarri egiten. Ordurako, baina, Juan Luis Saezek buruan zebilkien kanpinaren aukera. “Ni elektrizista naiz berez, eta egun batean egokitu zitzaidan Orioko eta Zarauzko kanpinen alboan dauden bi urbanizaziotan lan egin beharra. Kanpin haiek ikusita piztu zitzaidan ideia. Gero, lagun batek komentatu zidan, neuk ezer aipatu gabe, hegaztiak utzi eta kanpina muntatu beharko nukeela. Horrela jaio zen proiektu hau”.

Kilometro gutxiren baitan izango den laugarren kanpina izango da Zumaiakoa, Oriokoarekin, Zarauzkoarekin eta Itxaspekoarekin batera. Denentzat lekua dagoela uste du Saezek. “Eta gehiago egingo balira, haiek ere funtzionatuko lukete. Euskal Herrian turismoa indarra hartzen ari da. Orain arte ez gara turismoaz arduratu ere egin, edo ez da beharrik izan turismoa erakartzeaz arduratzeko. Etortzen zena ongi etorria zen. Orain, baina, badago turismoa erakartzeko beharra, eta lo egiteko lekuen aldetik eskaera eskaintza baino handiagoa da”.

Zumaiakoa, inguruko beste kanpinekin alderatuta, beste bezero mota bati zuzenduta dagoela uste du proiektuaren bultzatzaileak. “Zarautzek surfarekin eta sanferminekin egiten du urtea. Oriokoa lehen mailakoa da, baina hondartzan bertan kokatuta dagoenez, hondartzako giroari lotuta dago. Kanpinen merkaturia aldatzen ari da. Gazteei zuzendutako kanpinak daude, ezkongabe eta dibortziatuak zuzendutakoak, minusbaliatuak zuzendutakoak, gay eta lesbianeak zuzendutakoak... Guk gure ingurunearen maila bereko merkatura zuzendu nahi dugu gure eskaintza. Beste bezero mota baten bila goaz”.

Proiektuak Udalean eta udal zerbitzuetan izandako harreara ona goraiatzen du Saezek. “Ulertzekoa da, Zumaiak duen arazoetako bat alojamendu falta delako. Zer gertatu da azken Aste Santu honetan? Egunez jende pila zebilen herrian, baina gauze inor ere ez. Zergatik? Lo egiteko lekurik ez zutelako. Arazo horren jakitun dira Udalean eta begi onez ikusi dute proiektua, ostatua sortzeko eta turismoa erakartzen delako”.

Lanak amaitzen direnean, lehen mailako kanpina izango du Zumaiak. 157 partzela izango ditu, 600 lagunentzako kapazitatearekin. Egungoarekin alderatuta, Zumaiako lo egiteko lekuen kopurua zortzigatik biderkatuko da. “Kanpinak funtzionatuko du eta onuragarria izango da denontzat”.

Udalan jasotako arreta azpimarratzen du, baina finantziarioa lortzeko arazoak aipatzen zaizkionean muturra okertzen du Juan Luisek. “Atzerapenak, agiriak, bankuak, burokrazia... 2012rako lurrak mugitzeko baimena nuen eta 2013ko uztailean lanak hastekoak, baina finantziarioz ez genuen lortzen, eta hor joan zaizkigu bi urte eta erdi. Gaur egun negozio bat martxan jarri nahi baduzu, gauzak oso garbi izan behar dituzu eta ziur izan funtzionatuko duela, edo, bestela, egia esanda, ez duzu egiten. Enpresa berriak muntatzeko borondate gehiago behar da”. Banku guztietako atekak jo dituela dio, “arraroenetakoak ere bai, eta inon ere ez didate esan proiektua ez dela bideragarria. Baina, hala ere, dirua ez dute ematen”.

Azkenean, Popular bankuari eta Elkargi Elkarrerikiko Garrantia Elkarteari esker lortu du finantziarioa. Inbertsioa zenbatekoa den galdetutakoan, “handia” dela dio; ez du zenbatekoa esan nahi. Kopuruaren zati handi bat, “lanen kostuaren % 70”, irisgarritasun araudiak eramaten dituela dio. “Araudi horrekin malda handienak % 6koak izan daitezke. Araudiak dioena kontuan izanik, kanpina mailatan egingo da”.

Denborarekin proiektua aldatzen joan dela dio Juan Luisek. Gaur egun, kanpinean haiek jartzea aurreikusten da: salgai dauden bungalowak jartzeko 21 partzela (hasieran 76 aurreikusten ziren), alokatuko diren bungalowak jartzeko 10 partzela, autokarabanak eta karabanak jartzeko 76 partzela eta kanpin dendak jartzeko 30-35 partzela. “Baina hori aldatu ahal izango da eskaeraren arabera. Partzela guztiek izango dituzte ur, argindar edo isurbide zerbitzuak, eta egunen batean bungalow kopurua handitu edo txikitu behar bada, ez da arazorik izango”, adierazi digu Saezek.

Kanpinak beste zerbitzu batzuk ere eskainiko ditu, hala nola, igerilekua edota taberna-jatetxea. “Lehen mailako kanpina izateko behar-beharrezkoa da igerilekua edukitzea. Hasieran, bi igerileku aurreikusten ziren, baina azkenean bakarra eraikiko da. Bi hondartza eta ibaia dituen herri batean zentzu

“Kanpinak onura ekonomikoa ekarriko dio herriari”

Basustako kanpinak Zumaiako turismoan aurrerapauso garrantzitsua ekarriko duela uste du Esti Irureta Udaleko turismo teknikariak. “Garai hauetan halako ekimen pribatu bat izatea oso garrantzitsua da. Zumaiak ez du lo egiteko leku askorik, batez ere gazte, talde edo familientzat, eta proiektu hau garrantzitsua da alde horretatik”. Turistak erakartzeko bakarrik ez, herrian antolatzen diren hainbat ekitaldirekin hurreratzeko den jendea jasotzeko baliagarria delakoan da Irureta. “Hor ditugu hainbat kirol ekitaldi: Flysch Traila, orain gutxi izan den eskubaloitxapelketa... Jende horrek beste herrietan egiten du gaua, Zestoan edo Zarautzen. Kanpinak aukera emango digu Zumaiari geratzeko”.

Zumaiak gero eta bisitari gehiago erakartzen ditu, baina alojamendu kopurua ez dator bat gehikuntza honekin. “Flyscha dela, Geoparkea dela, Zumaia indarra hartzen ari da, baina lo egiteko lekuen aldetik oso mugatuta dago. Gero, kanpinak Geoparkearen filosofiarekin bat egiten du. Ez du inpaktu handia sortuko; gure filosofiarekin bat datorren ostatu mota da”.

Zerbitzu honek herriko ekonomian eragina izango duela uste du Irureta. “Kanpinak onurak ekarriko dizkio herriko ekonomiari. Turismoa beste sektore ekonomiko bat da eta garatu beharra dago, betiere ingurunea eta herriaren izaera errespetatuz”.

handirik ez zuen igerileku bat baino gehiago jartzeak”. Taberna-jatetxearen kudeaketa eskualdatzeko asmoa erakutsi du Saezek. “Pertsona egoki bat behar dugu horretarako eta dagoeneko badago jendea interesatuta. Profil hori betetzen ez duen pertsona aurkituko ez bagenu, guk geuk eramango genuke kudeaketa. Azken finean, jatetxe on bat izateak garrantzi handia du kanpin batean. Txarra izanda, hondora zaitzake”. Jatetxe hori kanpinetako bezeroei bakarrik ez, kanpokoei ere zabalik egongo dela adierazi du, baita inguruko enpresei ere.

Gaur egun bada autokarabanen gune bat Estazioko industrialdean. Saezek dio espazio horrek ez duela araudia betetzen. “Egungoa legez kanpo dago, ez dituelako arauak betetzen: inguruan hesia izan behar dute, komunak, harre... Gainera, ezin du zabalik dagoen kanpin batetik kilometro bat baino distantzia txikiagora egon. Nik uste Udala kanpina zabaldu zain dagoela gune hori lekuz aldatu edo itxeko”.

Negozio honekin lanpostuak sortuko direla azpimarratzen du Juan Luis Saezek. “Urtarokoak dira, baina lanpostuak dira. Behe denboraldian hiru bat langile egongo direla aurreikusten dugu; goi denboraldian, berriz, kopurua biderkatu egingo da eta hamar bat langile izango direla pentsatzen dugu. Jatetxean, berriz, 4-5 langile aurreikusten dira urtean zehar eta 10-15 udan”.

Lanak hasi besterik ez dira egin Basustako mendian; obrek oraindik luze joko dute. “Kontratuaren arabera, hamar hilabeteko epean bukatuta egon behar dute lanek. Gauzak ondo joanez gero, 2015eko otsailerako zabalik izango dugu kanpina”. Magalaren eraldaketa martxan, bungalowak saltzeko lanetan dabil Juan Luis Saez. “Moduluak erostera etortzen den jendea urte askotan hona uda pasatzera etorritakoa da: Eibarkoa, Zumarragakoa... Urrutienak Gasteiz, Iruñea edo Bizkaiko jendea da. Interesatuta dauden 30 bat lagunez osatutako zerrenda daukat eta egunotan elkarriketak izaten ari naiz. Itxaropentsua naiz eta maiatzeko denak salduko ditudalakoan nago”.

Hamaika hilabeteko urtea

Kanpinei aplikatzen zaien araudia aldatu egin da azken urteetan. Hala, legedi berriaren arabera, bungalowen jabeek etxe mugikorra kokatzen den partzelaren alokairua urtero berritu behar dute, eta urte osoko alokairuak berez hamaika hilabetekoak dira. “Neurri horrekin bungalowa bigarren etxebizitza bihurtzea ekidin nahi da. Horretarako, hilabetez hutsik egotera behartzen du legediak. Hilabete horretan, abenduaren 15etik urtarrilaren 15era, itxiko genuke kanpina”, dio Juan Luis Saezek. Kanpinetik Aste Santuan, zubietan eta udan funtzionatzen dute ondoen. “Hamaika hilabete horien baitan, proposatzen diegu bezeroei 180 egunetan etor daitezkeela. Egun kopuru horren barruan asteburu guztiak, zubiak, oporrak eta jaiegunak sartzen dira. Egun horietan zerbitzu guztiak eskainiko genizkieke. Baina egun horietatik kanpo, astegunetan, zerbitzu minimoak besterik ez lituzkete aurkituko. Horrekin ekidin nahi dugu bungalow baten jabea bertan bizitzen geratzea”. ■



BEDUA ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Indurigrunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

EGOKI



Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787



BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943861700



EKAIN

SAGARDO EKOLOGIKOA

www.ekainsagardoa.com • Tel.: 943 148 033



Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943 143 097
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet



DIGITAL+



ERNETO TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045



ERROTA

ERROTA
ORIL-OKINDEGIA
SANTILXO AUZOAN, 32
20750 ZUMAILA
TEL: 943860000
943860612
FAX: 943860977
errota@errota-okindegia.com

ERTZ INFORMATIKA

Portatilak
konpontzeko
zerbitzu berria

Eskatu sarekontua
konpromisorik gabe.
DOAN



Beheko plaza tel./faxa: 943 143 395

Galdona



burdindegia

Mendaro mendiola, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte 15 faxa 943 861 330

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057



Txomin Agirre kaia Tel. 943862181

ZATOZTE

zatozte.bakailaudenda@gmail.com

Juan Belmonte 4 behe 20750 Zumala

TF 943865393

Egin zaitetz
BALEIKEKO
barkide



GOIKO TABERNA

Erribera, 9 tel. 943 861 391



ARGAZKI ESTUDIOA | ESTUDIO DE FOTOGRAFIA

www.goizargazkiak.com | goizargazkiak@gmail.com
Txomin Agirre kaia, 2 behea

Ikastegi homologatua

Golden Gate

Institute
hizkuntza eskola



Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943 865 020
goldengateinsti@telefonica.net

ZUMAIAKO INDUSTRIA ONDAREA INTERNETEN

Bost urte daramatza Zumaiaiko Industria-ondarearen Informazio Zentroak (ZIIZ) Zumaiaiko industrializazioa ikertzen; lanaren emaitza ezagutzera emateko, webgune batera ekarri dute bildutako informazio eta dokumentazioa. Maiatzaren 23an aurkeztuko dute jendaurrean.

“Aitortu beharra daukat nik lehen ez nuela gai hauekiko sentsibilitate berezirik”, hasi da esplikatzeko Pedro Etxabe, ZIIZeko kidea. “Alemaniara alabarengana joan ginen batean, industria museo bat bisitatu genuen, egunpasa batean. Ruhr eskualdean industria museo asko daude. Guk ikusi genuen hura itsasontzientzako kanal bateko eskulasa zahar bat zen. Itxita zeramatzan 30 urte, itsasontziak handiegiak zirelako eta ez zirelako sartzen. Baina abandonatu beharrean museo bihurtu eta mantendu egin zuten, garbiaren aparatu mekaniko guztiekin, dena garbi-garbi... Horrek begiak ireki zizkidan. Konturatu nintzen Zumaian geneukan industria ondare guztia txikitu egin genuela. Eta Zumaia, ahaztu bazaigu ere, industrietatik bizi izan den herria izan da. Jabetu nintzen garai bateko enpresa asko desagertu zirela eta ez zegoela ezer jasota. Alemaniako museo haiek ikusita, konturatu nintzen Zumaian zerbait egin beharra zegoela”.

Eta horrela, behin erretiroa hartuta, Zumaiaiko historiarekiko jakin-mina erakutsi duten zenbait lagunekin hitz egin zuen Etxabek, eta ZIIZ taldea sortzea erabaki zuten. Orduetik, Zumaiaiko industrializazioan funtsezkoak izan ziren enpresa eta sektoreen gaineko informazioa bilatzen eta antolatzen pasa dituzte bost urte Pedro Etxabek, Javier Carballok, Ismael Manterolak, Rafael del Pilarrek, Xabier Alvarez Yeregik eta Oihana Artetxek.

“Hasierako asmoa zen industriarekin zerikusia zuen guztia jasotzea. Hasi ginen artxiboetan bilatzen eta bildutakoarekin datu base bat sortzen. Baina ohartu ginen eremu zabalegia zela, zerrenda amaigabea zela, eta ikerketa mugatu beharra zegoela”. Orduan erabaki zuten sektore garrantzitsuenak aukeratzea. “Lau zehaztu genituen: zementugintza, ontzigintza, motorgintza eta makina-erreminta”. Eta denboran ere mugak jarri zituzten: “Industrializazioa Euskal Herrian XIX. mendearen erdialdean hasi zen, eta Zumaian

TESTUA: GORKA ZABALETA

ZEMENTUAREKIN HASI ZEN DENA


Gaur egun, munduan gero eta ezagunagoa da Zumaia geologiagatik, itsaslabarretan gordetzen den milioika urteko Lurraren historiagatik. Baina geologiak izan du lehenago berebiziko zeresanik Zumaiaren historian. Izan ere, industrializazioa zementugintzaren eskutik iritsi zen gurera 1838tik aurrera, hain zuzen ere, Zumaia inguruan –Ibañarrietan eta Ertxiñan– zementu naturala egiteko osagai egokiak aurkitu zirelako: tuparriak eta ikatza. Ingelesak izan omen ziren Ibañarrietako harrobien kalitateaz jabetu zirenak, eta haiek animatuta hasi ziren harriak kare labetan erre eta gero oletan ehotzen. Horrela sortu zen zementugintza, Zumaia eta Urola Behearen industrializazioaren lehen motorra.

Hasieran labe eta ola zaharretan egiten zen zementua, lehendik zeuden azpiegiturak aprobetxatuta. Lehen fabrika modernoa 1858an sortu zuen Eusebio Gurrutxagak, Arroa Behean: Nuestra Señora de los Dolores. Lantegi berria eraiki zuen eta bertan bildu zituen zementua egiteko behar diren prozesu guztiak. Eredu hari jarraituz eraiki ziren beste bost fabrika XIX. mendearen azken aldera.

Urola Beheko zementu naturalak prestigio handia lortu zuen eta “Cemento Zumaya” deiturarekin ezagutzen zen merkatuan. Zementugintzaren premiak bultzatuta, Zumaia-ko portuan hobekuntzak egin ziren, eta horrek bizitza eman zion Zumaiari. Ekonomiaren motorra izan zen zementua.

Zementua garraiatu behar zenez, ontzigintza piztu zen berriro, hiru mendez hondoa jota egon eta gero. Ontzigintzak, aldi berean, industria mekanikoa ekarri zuen, motorren garapena, eta geroago makina erreminta. Portua hobetzeaz gain, trenak ekarri zen porturaino, barrualdeko fabrikak itsasoko garraioarekin lotzeko, errepidea eraiki zen... Zementuarekin hasi zen dena eta pixkanaka industria gune indartsu bat sortu zen Zumaian.

XX. mendearen erdialdean etorri zen zementu naturalaren gainbehera, Portland zementu artifizialarekin lehiatu ezinik, eta pixkanaka fabrika guztiak itxi egin ziren. “Zementugintzak izan zuen garrantzia erabat ahaztu egin zaie zumaiarrei, baina industria hura izan zen dena martxan jarri zuen motorra; eta ezaugarri garrantzitsu batekin: Zumaiaren izena zabaldu zuen, ‘Cemento Zumaya’ markarekin”.





◀ PORTUA BIZIBERRITUTA

Zementu fabrikei esker biziberritu zen Zumaiaiko portua. Gaiak garraiatzeko ezinbestekoa izan zen azpiegitura hobetzea. Ontzigintzaren pizkunda ere etorri zen zementugintzaren ondotik.



Izen aipagarri batzuk

Eusebio Gurrutxagarekin batera, Zumaiaen industrializazio prozesuan beste izen aipagarri bat Agustín Arbilla izan zen. Arbilla zaku fabrika eraiki zuen Ondartxon. Lehen zementua barriketan garraiatzen zen, baina ordutik aurrera Arbilla garen zakuak erabiliko ziren.

Ontzigintzari dagokionez, Eraso oso ontziola garrantzitsua izan zen. Zumaian 1925era arte egon zen eta gero Pasaiara alde egin zuen. Baporeak egiten lehena izan zen. Eta motorgintzaren sektorean, yeregitarrak. Gero hasi ziren Carmelo Unanue eta beste batzuk. Makina erremintaren kasuan, Holke alemaniarra. Lehena izateaz gain, gazte askorentzat formakuntza eskola izan zen fabrika hura. Beste enpresa askorentzat harrobia izan zen Holke.

◀▲ BEDUAKO FABRIKA

Irudian ikus daiteke zer nolako fabrikak ziren garai hartakoak.



JUAN LUIS ROMATET




Zumaiako Industri-ondarearen Informazio Zentroa

▲ HISTORIAZALEAK

Zumaiako historiarekiko kezka berezia agertu dute ZIIIZ sortu aurretik ere Xabier Alvarez Yeregik, Pedro Etxabek, Rafael del Pilarrek eta Javier Carballok (argazkian, ezkerretik eskuinera). Baita argazkian falta diren beste bi kideek: Ismael Manterolak eta Oihana Artetxek.

Gure-Txokoa
aberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaiak
Tel.: 943 86 09 70

English School
Harvest

...eta udaran Ingalaterrara ingelesa praktikatzera
www.academiarharvest.com

San Jose, 11 bis
tel. 943 143 334

API
Ibaigain
inmobiliaria

Ricardo Azkue
API 399

Txomin Agirre 4, beheak
tel. 943 862 651
faxa 943862748

rjazcue@euskalnet.net

ilarzi



Alai auzategia, 2
Tel. 943 24 50 20

**INPERUPE
ELKARTEA**



Erribera kalea 16.
Tel. 943 861 523

Iriondo
Optika

Kantauri plaza, 8. Zumaiak. Tel. 943 86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. Tel. 943 85 19 84

IRUITZ



Ileapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIK (Gipuzkoa)
Tel.: 943 860 760

TXALAPARTA
OPARIK

Angelos Soratu, 2
20750 ZUMAIK (Gipuzkoa)
tel. 943 143 089
faxa 943 430 637

Itzurun, S.L.
Aroztegia

Ateak, leihoak, tarimak, armarin enpokatutak...

Itzurun Zuhaitzibidea, 2 beheak
Tel. / Fax: 943 86 15 65

ORRAZTEGI
ZUMAIK



943 862 083

JUARISTI
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10
tel. 943 861 853

Zaia


Pintxoak eta otartekoak



Txomin Agirre Kala, 8

KABI Paketa Eteazarrak, 15
943 117 427

TABERNA



Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZH-rekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20
Tel./faxa: 943860320

kalari



Upela plaza, 8
tel. 943 862 517

PAPER diseinu grafikoa

Roberto Gutierrez
696 211 111 • rgutierrez@rgutierrez.org • www.rgutierrez.org

Kresala
Taberna



Julio beobide 3, tel. 943 019 869



garai hartakoak dira lehen zementu fabrikak. Hortik abiatu ginen. Gero, XIX. mendearen amaieran, ontzigitza berpiztu zen; haren ondotik, industria mekanikoa sortu eta motorgintzak indar handia hartu zuen; eta laugarrena, Gerra Zibilaren aurretik, makina erreminta”. Eta azkenik, erabaki zuten desagertuta dauden enpresak aztertzea. “Bizirik daudenak jarrai dezatela beren bidea”.

Lan lerroak zehaztuta, denbora asko eman dute informazio bila. Artxibategietako dokumentuak, Internet, elkarrizketa pertsonalak, artxibo partikularrak... Eskura izan dituzten iturri guztiak arakatu dituzte, ahalik eta informazio zehatzena lortu arte.

Material guztia aztertu, antolatu, sailkatu eta gorde ondoren, zer egin eduki horrekin? “Ikusi genuen informazio asko zegoela, dokumentu interesgarriak, argazkiak, objektuak... Zergatik ez hori guztia espazio fisiko batean antolatu eta erakutsi? Horrela sortu zen zentroaren ideia [taldearen izenean bertan dago jasota]. Gaia proposatu genion Udalari, eta eraikin egokitzat jo genuen Beheko Estazioa, Moilaberrian. Jaurlaritzarekin egin dira hura erabili ahal izateko saio batzuk [eraikina Jaurlaritzarena da], baina gaiak oraingoz ez du aurrrera egin”.

Zentroaren ideiarekin aurrera egin ezinik, beste aukera batzuk aztertu zituzten. “Liburu bat egitea ere proposatu zuen norbaitek, baina ez genuen garbi ikusten. Azkenean, garai hartan Aldundian ondare zuzendari zen Pilar Azurmendik proposatu zigun webgune bat egitea. Eredu bat erakutsi zigun eta asko gustatu zitzaigun. Orduz geroztik gure lana horretara bideratu dugu”.

Webgunea dagoeneko prest daukate; www.ziiz.org da helbidea, eta maiatzaren 23an aurkeztuko jendaurrean (Alondégian, 18:00etan). “Webgunearen ardatza enpresak dira. Informazio guztia horrela jaso eta antolatu dugu. Enpresa bakoitza nola jaito zen, nork sortu zuen, zer bazkide zituen, zer aldaketa izan zituen, zer produktu ekoizten zituen, non saltzen zuen, non zuen lantegia, noiz arte iraun zuen... Hori da lanaren mamia”. Enpresak sektoreka antolatu dituzte eta sektore bakoitzerako sarrera moduko bat ere landu dute. Eta

testuekin batera, argazkiak, marrazkiak, zigiluen irudiak eta bestelako elementu grafikoak ere jaso dituzte.

Lau sektore nagusiekin batera, Lanbide Eskolari ere atal berezi bat eskaini diote. Rafael del Pilarrek azpimarratu duenez, “eskola hari esker Zumaiako gazte askok industria mekanikoan lan egiteko ezagutzak jaso zituzten, lanerako prestatuta ateratzen ziren eskola hartatik”. Eskola sortu arte, lanbidea ikasteko modu bakarra zen lanean hastea 13 urterekin, ofizial baten ondoan. “Baina kezka eragin zuen gaiak eta 1952-53. urteetan sortu zen eskola, zumaiarren ekimenez. Luistarrek, San Pedro Kooperatibak eta Udalak sortu zuten, eta segituan inplikatu ziren zenbait enpresa. Arrangoletan hasi ziren eta gero Alondégian”.

Datorren urterako, erakusketa

Informazioa biltzarekin batera, herritarrei ezagutzera ematea da ZIIZen helburua. “Zumaiaren ekonomia industrian oinarritu da, baina hori gaur egungo gazteek ez dakite”, dio Del Pilarrek. “Guk, zorionez edo zoritxarrez, urte asko dauzkagu eta Zumaia industriaz josita zegoen garaiak bizi izan ditugu. Baina gaur hori desagertu egin da eta gazteek ez dute horren berri. Zumaia nola-koa den ulertzeko ezinbestekoa da iragan hori ezagutzea”.

Duela pare bat urte hitzaldi zikloa antolatu zuten, orain webgunea aurkeztuko dute, eta datorren urterako erakusketa antolatzea dute helburu. “Oxforden erakusketa bat antolatuko dugu, panelekin, argazki zaharrek, baina baita objektu fisikoeekin: motorrak, maketak...”. Espazio iraunkorraren aukera gauzatu bitartean, dibulgazio lanari eutsiko diote. Eta ikerketari ere bai. “Webgunearen abantailetakoa bat da irekia dela, etengabe osatzen joan zaitezkeela. Gure asmoa da sakontzen jarraitzea, agian beste sektore batzuk ere aztertzea”.

Aztarna arkitektonikoekin zer egin?

Zoritxarrez, Zumaian apenas gelditzen da antzinako industriaren aztarnarik, ia dena desagerrarazi dugu. Baina gelditzen den apurra babestea merezi duela uste dute ZIIZeko kideek. “Bixia bada ere, industria zaharreneko aztarnak dira ugariak, zementu fabrikenak. Horiekin zerbait egin beharko litzateke. Gero, Urolaren Beheko Estazioa dago. Kokaguneagatik eta bete zuen funtzioagatik, ahalegina egin beharko litzateke mantentzeko eta erabileraren bat emateko. Hortik aparte, ez dago askoz gehiago. Etxezarretan zeuden enpresa guztiak desagertu egin dira, erabat. Ez da ezer gorde. Ardantzabide ingurutik ez da ezer gelditzen. Arbustaingo garabia ere erortzen utzi zen eta zatiak sasi artera bota. Yuteratik ere ez da ezer mantendu... Beduan, zementu fabrika erortzen ari da; ontziola desagertu egin zen... Guk behin baino gehiagotan hitz egin dugu Udalarekin, zerbait egin dezaten, merezi duelako. Azken erantzuna izan da laster Arau Subsidiarioak berrikusiko direla eta orduan izan daitekeela une egokia gai hauek guztiak planteatzeko”. ■

SANTELMOAK 2014

Joan dira santelmoak; garbitu eta jaso ditugu lepoko zapiak eta arrantzale jantziak, hurrengo urtera arte. Parrandetako oroitzapen lausoak erabat ez galtzeko, jaietako argazki bilduma osatu dugu orrialde hauetan. Askoz gehiago aurkituko dituzue baleike.com webgunean.





ARGAZKITAN




Argazkiak:
lehen asteburua





Euriari aurre

Inorentzat ez da ezustekoa izango santelmoetan euria egitea. Haurren danborradako antolatzaileek 25. urteurrena ospatu nahi zuten, bai ala bai, eta zira bana prestatu zuten haurrentzat. San Telmo eguneko prozesioa ere euripean egin behar izan zen. Bandak ez zuten San Telmo kaleko bidea egin prozesioarekin, musika tresnak ez hondatzeko, eta erabakia ez zen guztien gustukoa izan. Hurrengorako zira bereziak erosi beharko...





Bideoa:
Haurren
danborrada





kuttun
lentzeria

erribera kalea tel. 943117936



malaur

MAITE
ILEAPAINDEGIA



Amaiako plaza, 2 tel. 943 143 278



Maluta
jatekxoa • taberna

oilasko erreak • kaxuelitak • ogitartekoak
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizzak
hanburesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



MENDI - ONDO c.B.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



Nikol
taberna

amaiako plaza 943561516



NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943 861 363
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar industrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com

636 887 812 (Zumaia)
809 834 438 (Itziar-Deba)
www.carroceriasnoia.com

MARGARI fruta-denda

Tel. : 943 86 19 20
Harategi Kalea 17 - ZUMAIA

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 691



OSA
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149

ETXEGINTZA

OLIDEN
construcciones y reformas, S.L.

647 040 156
686 911 257
oliden@olidenreformas.com

Oliden arkitek-tura

678 875 652
943 143 093
lur@olidenreformas.com

ZARAUTZ - ZUMAIA

www.olidenreformas.com

Fabxadak
Teilatuak
Etxebizitzak
(Sukaldeak, bainugelak)
Industrien mantenimenduak
Mota guztietako igeltserotza lanak

Etxebizitzen inspezio teknikoak (ITE)
Zertifikatu energetikoak
Fabxaden diseinua eta aholkularitza
Etxebizitzen barne diseinua
Mota guztietako proiektuak



OSKARBI
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranaltz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbikirolak@euskalnet.net



OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Jose Mari Kortia Industriegunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
Altzariak

Julio Beabide Ibiltozia, 1
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net

Tel./Faxa: 943 86 13 25

OTEZURI
KAFETEGIA

Gosariak
Ogia
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401

Banderaren igoera

Erretiroa hartutako arrantzaleei dagokie kofradian bandera igozteia, danborrada nagusiak San Telmo martxaren notak jotzen dituen bitartean. Aurten Pascual Gomezi egokitu zaio ohorea.



SAKABANAKETAREKIN AMAITU
euskaratzen eta inbestitzi politikokoak etxera

Bideoa:
Banderaren
igoera.



Primavera pizzeria

943 247 011

www.laprimaverapizzeria.com

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353

RUBIO Pinturak

PINTURAK,
ARTE EDERRAK,
ALFONBRAK,
DROGERIA,
PINTATURIKO PAPERAK,
ESKULANAK...

943 861 335 • 656 779 788
Erribera 1 behea

SESMA
ENTRENATZAILE PERTSONALA

Kalitatezko Jarduera Fisikoa eta Kirola

667 750 206
www.entrenadorpersonalesma.com
josebasesma14@gmail.com

Talaya
taberna • jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

TALAI-PE
jatetxea-erretegia

Arrainak, mariskoak eta txuletak parillan
Julio Beobide ibiltokia Tel. 943861392

Tapaia
Taberna

Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

TTAKUN TABERNA

Izustarri, 3
tel. 943 865 289

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondok (hodilloo)
Salbitzak, oilaskoak...
Garagardok dukeron

Ondartza plaza, 4 beheko Tel. 943 573 905

Egin zaitez
BALEIKE
bazkide

GERRAKO BOST
DESAGERTU
ALIRIKITU ENTUZTE

UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA

Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com

UPELA PARABOTIKA
BELARDENDA

- ✓ Sendagai naturalak.
- ✓ Osteopatia eta masajeak.
- ✓ Naturista, dietetika eta elikadura.

Upela plaza, 9
943 537 911
upelabelardenda@hotmail.com

Zalla

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Upela Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA

ZUMAIA AUTOESKOLA
E-mail: zumaiaautoeskola@euskalnet.net

BASADI 12
20750 ZUMAIA
Tel. 943861018 / Fax: 943016126

Zumaia Hotela
Jatetxea
Kafetegia

Alai auzategia, 20750 Zumaia tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

EuroTaller
ZUMAIA MOTOR, S.L.

José Rey Alfaro
Gerente

Santxo Auzoa, 22
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Telf. 943 143 143 - Fax 943 865 161
e-mail: zumaiaomotor@telefonica.net

ESKERRIK ASKO
—
25 URTE ZUEKIN

%25
DESKONTUAK

25 urtez gure ondoan zaudelako.

EDU
ZUMAIKO
OPTIKA

Txomin Agirre 6, 20750
T 943 143 057
www.eduoptika.com



Parte hartzea

Errepetizioetako ostiralean izaten dira Bertsotan Jai eta Bertsioen Gaia, biak herriko gazteen parte hartzearekin antolatutako ekitaldiak. Bertsotan aurten The Show must go on taldeak irabazi du zapia; estreinakoz, erabat neskez osatutako taldea irabazle. Bertsioen Gauean zortzi taldek jo zuten bost ordu inguruko kontzertua.



Argazkiak:
bigarren
asteburua







Bukaera ona

Bigarren asteburuan jende gehiago izan zen jaiez gozaten, eguraldia lagun. Olagarro zoparik onena Beheko Plaza elkartearena izan da aurten; zaldi lasterketan Santi Telleria eta Istai zaldia izan ziren azkarrenak; eta traineriletan Oriorentzat bandera, polemika eta guzti. Baina pozez gainezka ikusi genituenak banderaren jaitsierara bildutako dozenaka gazteak. San Telmo gehiago etorriko direlako.



Bideoa:
Banderaren
jaitsiera





IRIONDO OPTIKA

BEGIEN ZAINZAN ETA OSASUNEAN ADITUAK

MARIAN IRIONDO ETA ESTI ARIZNABARRETA OPTIKO-OPTOMETRISTAK DIRA, ETA DAGOENeko 10 URTEKO ESPERIENTZIA DUTE LAN MUNDUAN. MARIANEK FARMAZIA IKASKETAK ERE BADITU, ETA ORTOKERATOLOGIA TRATAMENDUAN ETA BEGIETAKO GAIXOTASUNETAN DA ADITUA. ESTI, BERRIZ, TERAPIA BISUALA ETA IKASKETA GAITASUNEN LANKETAN DA ESPEZIALIZATUA. MARTXOAREN 8AN ZABALDU ZUTEN OPTIKA HERRIAN, MARIA DURAN LAGUNTZAILEAREKIN BATERA. “BETAURREKO DENDA SOILA BAINO ASKOZ GEHIAGO GARA, BEGIEN OSASUNA BERMATZEA DA GURE LEHENTASUNA, ETA HORI DA, HAIN ZUZEN, BEREIZTEN GAITUENA”, BAI EZTATU DUTE. HORRETARAKO, TRATAMENDU BEREZIAK ETA TEKNOLOGIA BERRIENAK ERABILTZEN DITUZTE.

TRATAMENDU BEREZIAK

Gaur egun bi motatako tratamendu bereziak eskaintzen dituzte: ortokeratologia eta terapia bisuala, eta etorkizunean beste tratamendu edo zerbitzu berriak eskaintzea dute helburu. Ortokeratologia lentilla berezien bitartez egiten den tratamendua da. Egun guztian zehar ikusmen argia lortzen da betaurreko eta lentillarik jarri gabe, eta miopiaren hazkuntza motelzen ere laguntzen du.



Bigarren tratamendu berezia, berriz, terapia bisuala da. Ariketa bisual espezifikoeetan oinarrituta dagoen teknika optometriko bat da. Trebetasun bisualak hobetzeko helburua du, eta batez ere umeekin erabiltzen da. Konbergentziaz, enfokatzeko sistemaren estimulazio eta erlaxazio gaitasunez, begi alferraz edo begiaren mugimenduaren hobekuntzaz arduratzen dira. Ikusmenarekin zerikusia daukaten ikasteko zailtasunak saihesten laguntzen du terapia honek.



ZERBITZUAK

Optiketako ohiko zerbitzuak bermatuta daude: optometria (ikusmenaren graduazioa haur eta helduetan eta begietako anomalia posibleen detekzioa), kontaktologia (lentilla bigun eta gogorren graduazioa eta adaptazioa), tonometria (begien tentsioaren neurketa), topografia (kornearen neurketa zehatza), eta konponketa tailerra (era guztietako armazoi eta lenteen konponketa eta muntaia zerbitzua).

TEKNOLOGIA AURRERATUENA

Tratamendu bereziak, eta edozein kontsulta ahalik eta ondoen egiteko, teknologia aurreratuena erabiltzen dute. Tresna eta gailu modernoak dituzte, eta azken tendentziatarako egokituak daude. “Begien tentsioa neurtzeko gailua daukagu, topografoa, baita begien hondoa ikusteko ere. Azken horren bidez, begiaren erretina, zainak, nerbioak... dena ikusten dugu”. Helburu argia dute: begiaren osasuna bermatzea, eta, horretarako, tresna eta tratamendu egokiak dituzte.

DISEINUA ETA MARKAK

Ikusmenaren osasuna eta kalitatea ziurtatzea da Iriondo Optikaren xede nagusia, baina diseinua ez dute albo batean utzi. Betaurreko graduatuetan eta eguzkitakoetan, betiko markez gain, marka eskusiboak ere erabiltzen dituzte. Denetarik dute, eta Azkoitian duten dendarekin batera, merkatuko marka guztiak eskaintzen dituzte. “Diseinuan ere azken tendentziak aurkezten ditugu, eta Azkoitian dugun dendarekin batera, merkatuko marka guztien kobertura bermatzen dugu”.

BESTELAKO ZERBITZUAK

Prismatikoak, meteorologia estazioak, audifonoetarako pilak, lentillen likidoak eta estutxeak... saltzen dituzte.

SAREAN KONEKTATUAK

Zerbitzu eta tratamenduen azalpenak, betaurrekoen argazkiak, edozein kontsulta egiteko edo zalantza galdetzeko aukera dago webgune edo facebook orrialdeen bitartez.

Informazio guztia esteka hauetan aurki daiteke:

<http://www.opticairiondo.com/> webgunean,

eta facebookeko bi orrialdeotan:

Zumaia: <https://www.facebook.com/optica.iriondo>

Azkoitia: <https://www.facebook.com/iriondo.optika>

Harremanetarako helbidea eta e-posta, berriz, hauek dira:
Zumaia: Kantauri Plaza, 8; 943 86 04 86 telefonoa;
eta zumaia@opticairiondo.com posta elektronikoa.
Azkoitia: Kale Nagusia, 53; 943 85 19 84 telefonoa;
eta azkoitia@opticairiondo.com posta elektronikoa.

ZUMAI KALITATEZKO ESPERIENTZIA



Egin facebook-eko jarraitzaile
eta irabazi **200 €**
gastatzeko esperientzia bat.

Gure **facebookeko jarraitzaile** guztien
artean esperientzia 1 **zozketatuko**
dugu **hilabetero**.
Zuk zeuk bizitzea onena!!

facebook



www.facebook.com/ZumaiakoMerkatariOstalaritzaElkartea

**Esperientzia, personal shopper batekin bi orduz erosten jardutea izango da.
200 euroko aurrekontu bat izango duzu elkarteko edozein dendetan erabiltzeko.*



**GURE
ESKUV
DAGO**

Zumaiako Udala erabakitze eskubidearen alde

Giza katea ekainaren 8an
Gure esku dago

Hartu parte!



Zumaiako Udala

MAIATZA

DEIALDIAK

MAIATZA DANTZAN

2014: maiatzeko asteburuetan dantza ikuskizunak herrian zehar.

Maiatzak 23-25

ESTAZIOKO JAIAK (ikusi egitaraua)

ERAKUSKETAK

OXFORD aretoan

Apirilak 16 - maiatzak 4

JAKINTZA - Haur

danborradako argazki erakusketa: 1990-2014

Maiatzak 9-25:

Forondako ikastaroetako lanak

Forondako ikastaroetako lanak

Maiatzak 30 - ekainak 22:

MANU MUNIATEGI:
"Badoa badator"

MAIATZA

9, ostirala

19:30 Foronda kultur etxean,
Gune elkartearen solasaldia,
Pello Añorga: "OIKOa da
gure etxean ez egotea"

10, larunbata

10:15 Kadete mailako
Zumaiako Saria txirrindulari
proba

19:00 Maria eta Jose
Ikastetxean, Dantzara IV,
Nava Jeevan elkarteari
laguntzeko

16, ostirala

18:30 Alondegian, hitzaldia
Erkibe kultur elkartearen
esku, SOS Bebés Robados
Elkartekoekin

22:00 Aita Marin, antzerkia:
Zanguangoren "Aquí va a
pasar algo"

17, larunbata

10:00 Eskolarteko kirolak,
duatloia

11:00-13:00 "Marearteko
eremua", familientzat
irteera. Izen-ematea Algorri
Interpretazio Zentroan
(943143100 / info@algorri.
eu)

19:00 Maiatza Dantzan:
Kantauri Plazan, dantza
moderno

18, igandea

12:00 Haur antzerkia:
Gorakadaren "Aladdin"

22, osteguna

22:00 Aita Marin, zine forum:
"Nymphomaniac II"

23, ostirala

19:00 Oxford
aretoan "Zumaiako
industrializazioaren
memoriaren webgunea"
aurkezpena, ZILZ elkarte
23:00 Ganbara tabernan,
bakarriketa "Txafas"en
eskutik

24, larunbata

10:00 Eskolarteko kirolak,
golf
19:00 Maiatza Dantzan:
Estazioan, dantza neoklasikoa

29, osteguna

19:00 NON Maiatza Dantzan:
euskal dantza

30, ostirala

20:00 eta 22:30 Aita Marin,
antzerkia: Txintxeta,
"Potologuak"

31, larunbata

10:00 Txirrindularitzako
Arritokietako igoera
19:00 Maiatza Dantzan: Alai
auzategian, areto dantzak
20:00 Kabi tabernan,
kontzertua: Tristan Crowley



POTOLOGUAK

30, ostirala 20:00 eta 22:30 Aita Marin, antzerkia.
Txintxeta antzerki taldea.



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



• Txarkuteria bikaina

• Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak

Jexux IRIBAR "OLALDE"



Pilota jokoa Zumaian

Doinua: "Habanera"

1.

Gertatua historia kokatzen det Odietan, pilota "hotsa" degula barne burmuin hodieta, berezia, joarazi ohi zutenean bietan, oraindik zutik han dauden harri losa lodietan.

Eskuz, palaz eta zestaz, jokamolde guzietan, aitzindaria izana, emankorra emaitzetan, baldin eta nahi badegu murgildu garai haietan... jarrai dezagun jokatzen grina dela erraietan.

2.

Herri eskolan badegu nolabaiteko aukera, ezer gabe ginen eta moldatzeko sikiera, pilota eskolarako batik bat egina bera, aisialdiak ere hor aurkituz bilakaera.

Asko kosta bada ere frontoi berrian sorrera, begi bistan degu eta pöztu beharrean gera, haundia eta ederra, proiektuan arabera. Izenarena...pentsatzen, ere hastea hobe da.

3.


Frontoiak izan behar du herrian zerbitzurako, pilotarien sorleku, egina pilotarako, eskuz eta erremintaz, neurritz luzea delako, eserlekuak zazpirehun, egun haundietarako.

Bi mila eta zazpitik eraikitzen denerako, zortzi urte betetzeko askorik ez da faltako, di-da egin behar zena... luzatu da, eta bapo! Balioko ahal du behintzat eskarmentu gisarako.

4.

Azken bertsoan leku bat pilota herrikoiantzat, aipatuaz Odieta berrituaren eskaintzak, txapela falta du baina, lekuz eta..ondo behintzat, esku eta palakoak hartzen dutelarik aintzat.

Itzurun ere pilotan! leunduz flysch eta haitzak. Zestakoak herriz kanpo landuaz bere emaitzak. Nahiz bazterrak ilun jartzen dituan inoiz ekaitzak... eguzkia ekarri ohi du barealdi bakoitzak.



ERABAKITZEKO
ESKUBIDEARI

BAI



Maiatzak 14 HITZALDIA
19:00etan Kultur etxean

Maiatzak 18 EKITALDIA
13:00etan Amaia Plazan

eman botoa

 **ehbildu**
herrikerabaki

BALEIKE

aldizkariko irakurleentzat

ESKAINTZA

BEREZIA

649€



INDUKZIOA

699€

TEKA
INDUKZIOA
IRS 621

- Touch Control "SLIDER"
- 3 indukzio gune
- Biselatua

TEKA
LABEA
HPE 626

- PIROLISI bidezko garbiketa
- Inoxidablea
- 7 erabilera ezberdin
- Programatzeko aukera

Etxean muntatzea
barne*



INOX

PIROLITIKOA



ENDAÑETA ZUMAIA
ELEKTROGAILUAK

Erribera, 8 Tel. 943 861 694
www.endanetazumaia.com

*Unitate mugatuak